

Botuen gainetik integrazioa

	<i>Botu abertzalea</i>	<i>Botu ez-abertzalea</i>
	(%)	(%)
Araba	39,5	60,5
Bizkaia	56	44
Gipuzkoa	64	36
Nafarroa	19,5	80,5

Hona Hego Euskal Herriko mapa politikoaren irakurketa posible bat. Badago besterik ere. Baina ez ote hauexek argazkirik finenaren marrarik lodienak, errealitatea bere zatirik handienean eta sentikorrenean egiaz eta benetan ispilatzten duen argazkia?

Ezaguna denez, Euskal Herriko botuak, orain eta lehen, ardatz nagusi bikoitz bat du: abertzale/ez-abertzale, alde batetik, eta ezker/eskuin bestetik. Ardatz baten zein bestearen erreferentzian egin daitezke azterketak. Baina, kasu!, hauteskundeok Espainian egin ala hemen egin ezin dute azter-erizpide bera izan. Nago, gure kasuan, oraingo (eta adibidez, 1979ko martxoko hauteskundeetan berdín) hauteskundeak planteatu zaizkigun moduan Euskal Herrian eman den botuan *abertzale/ez-abertzale* ardatzak besteak baino pisu handiagoa duela.

Hipotesi edo erizpide horren arabera bozemate honi begiraturik, zer esan? «Botu espainolista» nagusitu egin zaigula? Mapa politiko berri baten aurrean gaudela orain?

Aitortu behar dut urriaren 28ko gau hartan izutu ere egin nintzela pittin bat. Gerora, analisiak erakutsi dit mapa politiko berririk ez dagoela inondik ere, PSOEek halaxe nahi izan arren. Hauteskundeok, egia esan, ez dute deus errebelatu. Argitu egin dute. Zer argitu? Errealitate mingarri bat, gordean zegoena, jakin bagenekiena baina geure buruari —agian— ezkutatu nahi geniona, nola

esan, Euskal Herriaren erdibiketa. Funtsean, nerretzat, *Euskadi bai Euskadi ez* auzian, erdibi gara Euskal Herrian bizi garenok. Hauxe da nere kezka-iturria.

Mapa politikoa egiazki ez dela aldatu entzutean jende asko poztu egin da. Botu espainolistaren «boom» hau koiunturaltzat jo du zenbaitek. Puxika bat bezala puztu dela eta berehalaxe zulatu dela esan dute beste batzuk. Sinetsirik ala sinetsi nahian, ala sinets arazi nahian?

Hauteskunde hauetan marraztu den mapa politikoaren lerro batzuk, trazo batzuk behin-behinekoak direla, berehala desagertuko direnak? Baliteke. Baina mapa politikoa hau berau eratzen duten lerro nagusiak, horiek iraunkorrak dira; eta horiek dute munta, ez enparauak. Hauteskunde hauetan abertzaletasunak gehiago egingo zuela aurrera espero nuen nik. Eta ez. Badirudi badagoela hor nonbaiten muga bat bezala, eta alde batetik bestera igarotzea oso nekez gertatzen dela. Inpresio hau bermaturik gelditzen da JAKINek (11. zenbakian) ateratako analisi grafikoak udalez udal eta alderdiz alderdi aztertuz eta oraingo bozematearekin konparatuz. Herrien ziluetek, eta herrien arteko hurbiltasunak ez dute, ia seguru, aldaketarik izan. Arazoa (erdibiketa, bipolarketa), xehetasunak alde batera utzita, iraunkorra da. Eta horregatixe kezka-garria.

Luzaroan jarrai lezake egoerak horrelaxe, botu espainolistak zerikusi handia bait du inmigrazioarekin. Inmigratio-kopuruaren araberako herrien zerrendaren lerro bera jarraitzen du botu espainolistak, grafikoetan ikus daitekeenez. Oraingo eta lehengo hauteskundeean. Ez da errealitate berria. Kezkagarriagoa horregatixe.

Egoera berri bat idorotzeko ez baina auzi zahar bat plazaratzeko parada ematen digute hauteskunde hauek. Integrazioaren auzia, alegia. Geuri, abertzaleoi, interesatzen zaigu integrazioaren premia eta bideak planteatzea. Erdibiketa honetan Euskadik ez du etekinik, ez irabazirik. Abertzaleok ere ez. «Espainolistentzat», aldiz, tentazio handitxo da, eta «desintegrazi» honi eutsi nahiko diote bai bozak lortzeko eta bai Euskadi bera desagiteko, etorkizunik gabe uzteko. Geroa testigu, beldur naiz ni inmigranteen eta autoktonoen antagonismo horretaz alderdiren batek baino gehiagok baliatu nahiko duela. Berandu orduko, posizioak finkatu orduko biguntzera jo beharko genukeela esango nuke. Ez dakit denborak gure alde jokatzen duenentz. Inmigrazioaren lehen belaunaldia noiz suntsituko zain egon nahi dutela batzuk ematen du.

Lehenbailehen heldu behar zaio auziari, Euskadiren etorkizuna integrazioetik igarotzen da eta. Eta seriocki heldu ere. Ez hauteskunde-garaian «casas regionales» horiek bisitatuz. Ez integraturiko inmigrante bat edo beste, mostra bezala, han eta hemen, mitinez-mitin, crakutsiz. ■ *Joan Mari Torrealdai.*